

PRENTSA OHARRA

Zamudion, 2023/07/17

XABIER ZUBIAUR AGIRRE, ITELAZPIKO ZUZENDARI NAGUSI BERRIA

- Gaur, Xabier Zubiaurrek etapa berri bat hasi du Itelazpiko zuzendaritza nagusiaren buru gisa, joan den ostiralean, uztailak 7, Administrazio Kontseiluak izendatu ondoren.
- Zubiaurrek esperientzia zabala du telekomunikazioen eta Administrazio Publikoaren sektorean, eta bere erronketako bat izango da euskal administrazioak eta lurraldeak digitalizatzeko proiektuak bultzatzen jarraitzea, teknologia berritzaileen bitartez, hala nola IoT edo 5G.

Gaur, uztailak 17 astelehena, [Xabier Zubiaur Agirre](#) Itelazpiko Zuzendaritza Nagusiko buru izan da, joan den ostiralean, uztailak 7, sozietate publiko honen Administrazio Kontseiluak ofizialki izendatu ondoren. Zubiaurrek, **Matxalen Lauzirika** ordezkatu du, otsailaren amaieran Eusko Jaurlaritzako Gobernantza eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzan lan-etapa berri bat hasi baitzuen.

Zubiaur Itelazpin sartu da [2021-2024 plan estrategikoaren](#) erdian, telekomunikazioen sektorean eta Administrazio Publikoan esperientzia handia izanik. Tarteko mugarri horretan, planaren balantzea egin eta berrikusi beharreko ildo estrategikoak identifikatu behar dira. Hori guztia administrazioak eta lurraldeak digitalizatzeko sektore estrategiko batean, gauzatu beharreko aukera handiekin.

Zuzendaritza-etapa berri honetan, eta zerbitzu berrien esparruan, Zubiaurrek **erronka garrantzitsuak** ditu aurretik, hala nola **EAEko IoT sare publikoa** sendotzea eta Itelazpik **5G eremuan** landa-inguruneetan duen posizionamendua aztertzea. **Core** zerbitzuei dagokionez, Zubiaur 2023aren amaieran egingo den **Irrati-komunikazioen Munduko Konferentziaren** atarian sartu da. Ekitaldi honetan hartzen diren erabakiek **LTD telebista** hedatzeko zerbitzuaren bilakaera markatuko dute datozen urteetan, eta Zubiaurrek topaketa horretan hartzen diren erabakiak bideratuko dituen eraldaketari aurre egin beharko dio.

Jardueraren gainerako funtsezko ildoei dagokionez, zuzendaritza berriak **Tetra** (Trans European Trunked Radio) eta EAEko trenbide-sektoreari eta uraren kudeaketari datuak transmititzeko zerbitzuak sustatzen jarraituko du, besteak beste. Era berean, prozesuak digitalizatzeko eta azpiegituren energia-kudeaketa hobetzea ahalbidetuko duten tresnak eta teknologiak ezartzeko lanean jarraituko da.

Gizarte-erantzukizunari dagokionez, Zubiaur arlo horretan ibilbide luzea duen erakunde batean sartu da. Horrela, zuzendari nagusiari dagokio Itelazpik azken urteotan **berdintasunarekin, ingurumenarekin, pertsonekin, ezagutza zabaltzearekin** eta **hizkuntza-normalizazioarekin** izan duen eginbeharrari eustea. **Garapen jasangarriko helburuak** ([GJH](#)) onartzea eta **Munduko Itunarekin** bat egitea izango dira ibilbidea eta jarduera gidatzeko funtsezko erreferentziak.

NOTA DE PRENSA

En Zamudio, 17/07/2023

XABIER ZUBIAUR AGIRRE, NUEVO DIRECTOR GENERAL DE ITELAZPI

- Hoy, Xabier Zubiaur, ha iniciado una nueva etapa al frente de la dirección general de Itelazpi tras ser nombrado el pasado viernes 7 de julio por el Consejo de Administración.
- Zubiaur, con una experiencia dilatada en el sector de las telecomunicaciones y la Administración Pública, tendrá entre sus retos seguir impulsando proyectos de digitalización de las Administraciones y los territorios vascos a través de las tecnologías más innovadoras como el IoT o el 5G.

Hoy, lunes 17 de julio, [Xabier Zubiaur Agirre](#) ha iniciado su actividad al frente de la **Dirección General** de Itelazpi, tras ser nombrado oficialmente por el Consejo de Administración de esta sociedad pública el pasado viernes 7 de julio. Zubiaur sustituye a **Matxalen Lauzirika**, que a finales de febrero, iniciaba una nueva etapa laboral en la Dirección de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales del Departamento de Gobernanza y Autogobierno del Gobierno Vasco.

Con una dilatada experiencia en el sector de las telecomunicaciones y en la Administración Pública, Zubiaur se incorpora a Itelazpi en el ecuador del [plan estratégico 2021-2024](#). En este hito intermedio, corresponde hacer balance del plan e identificar las líneas estratégicas que sean objeto de revisión. Todo ello en un sector estratégico para la digitalización de las Administraciones y los territorios, con grandes oportunidades a materializar.

En esta nueva etapa directiva, y en el ámbito de los nuevos servicios, Zubiaur tiene por delante **importantes retos** como la consolidación de la **red IoT** pública vasca, así como el análisis del posicionamiento de Itelazpi en el ámbito del **5G en entornos rurales**. En referencia a los servicios **core**, Zubiaur se incorpora en la antesala de la **Conferencia Mundial de Radiocomunicaciones**, que se celebrará a finales de 2023. Las decisiones que se tomen en este evento marcarán el devenir del servicio de **difusión de televisión TDT** en los próximos años, y Zubiaur, deberá afrontar la transformación que deparen las decisiones que en ese encuentro se tomen.

En cuanto al resto de líneas fundamentales de la actividad, la nueva dirección seguirá impulsando la prestación de servicios **Tetra** (Trans European Trunked Radio) y de transmisión de datos al sector ferroviario vasco y al de la gestión del agua, entre otros. También se seguirá trabajando en la digitalización de procesos, y en la implantación de herramientas y tecnologías que permitan mejorar la gestión energética de las infraestructuras.

En cuanto a la **Responsabilidad Social**, Zubiaur se incorpora a una entidad con una amplia trayectoria en este terreno. De este modo, corresponderá a su figura como director general sostener la reseñable actitud que Itelazpi ha mantenido a lo largo de estos años en su deber con la **igualdad**, el **medioambiente**, las **personas**, la **divulgación de conocimiento** y la **normalización lingüística**. La asunción de los **objetivos de desarrollo sostenible (ODS)** y la adhesión al **Pacto Mundial**, serán las referencias clave que servirán para guiar el recorrido y la actividad.

INFORMAZIO GEHIGARRIA / INFORMACIÓN ADICIONAL

HARREMANETARAKO DATUAK / DATOS DE CONTACTO

944032300
komunikazioa@itelazpi.eus